



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

## PRENTSARAKO OHARRA

# **BIZKAIKO FORU ALDUNDIA AKUSAZINO PARTIKULAR MODUAN AURKEZTUKO DA ZALDIBARKO HONDAMENDIAN**

- **Unai Rementeria Ahaldun Nagusiak neurri horren barri emon dau Batzar Nagusietako Kontroleko Osokoan, foru erakundeak eta herritarrek “kalteak” jaso dituela ulertzen dauelako.**
- **Bizkaibusek bikoiztu egingo dau Gaztelugatxera heltzeko zerbitzua San Joseko eta maiatzaren 1eko zubietan eta Aste Santuan.**

(Gernikan, 2020ko zezeilaren 26ean).– Unai Rementeria Bizkaiko Ahaldun Nagusiak Gernikako Batzarretxean egindako kontroleko osokoan gaur iragarri dauenez, Bizkaiko Foru Aldundia “akusazino partikular moduan aurkeztuko da” Zaldibarko hondamendian, foru erakundeak eta Bizkaiko herritar guztiek hondakindegia jaustearen “kalteak” jasan dituela ulertzen dauelako.

Rementeriak, foru erakundea ikuspegi juridikotik proaktiboa izan behar zan argitzeko eskatzen eutsan Batzarretako EH Bildu taldeak egindako itaunari erantzunez iragarri dau hori. Aldundiko arduradun nagusiak argitu dauenez, “dana argitu beharko da. Dana: nork baimendu eban hondakindegia hori edegitea, zeinek izan dauen hondakindegiko udal mailako ardurea urte honeetan, nork ez dauen kontrolau, edo kontrolau dauen, bertara botaten zana, nor aritu izan dan ondo edo txarto. Dana sakon ikertu eta erantzukizunak argitu beharko dira, jakina baietz”, esan dau.

Beatriz Ilardia EH Bilduko bozeroaleak, bere erreplikako txandea baliau eta kasuagaz erlazionautako galdera barriak sartu ditu eta, zehatzago esanez, inguru horretan bestelako lur-jausirik gertatu ete daiteken, Zaldibarko hondakindegian zer dagon dakien ala ez, eta jausitako hondakindegitik urteten daben hondakinak nora ari diran eroaten dakien ala ez azaltzeko eskatu deutso Rementeriari.

Bere erantzunean, Ahaldun Nagusiak esan dau tamalgarria dala koalizino abertzaleak “zaratea” eta “polemikea” bilatzea, eta “gauzak zenbat eta okerrago, nire alderdiarentzako hobeto” horretan ezkutatzea, “danok batera”



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAI A

behar egin beharrean, 2016ko martian Ondarroako hegala jausi zanean egin zan moduan. Orduan “ez jakon kolore politikoari begiratu”, erantzun dau.

Zaldibarko kasuan, lur-jausia gertatu zanetik Aldundiak gauzatu dituan jarduketa guztiak azaldu ditu Rementeriak, eta oraindino “behar asko dagola egiteko” adierazo dau. Aurretik, bere berbaldiaren hasieran, alkartasuna agertu dau oraindino desagertuta dagozan behargin bien familiakaz, eta eskerrak emon deutsez lur-jausia gertatu zanetik bertan beharrean dabilzan profesionalei.

Horrez gain, gogoratuazo dau lurraren ezegonkortasunak “etsaia” izaten jarraitzen dauela, eta lurra egonkortzeko “behar eta denpora asko, hilebeteak” beharko dirala iragarri dau.

Rementeriak autortu egin dau erakundeetako ordezkariak egiten ari diran beharra, “lehenengoa Lehendakaria, hasieratik krisi egoera honen buru izan dalako”. Baina, gertatutakoaren ostean “alderdi batzuek” erakutsi daben jarrera zalantzan jarri dau.

EH Bilduko bozeroaleak, bere aldetik, “Aldundiak arduraz jokatzeko ordua dala” adierazo dau. Aldundiak emon dauen pausua “positiboa” dala esan dau, Aldundiak badaukalako “loturea” gertatutakoagaz eta, ganera, gertatutakoaren atzean “milaka kaltetu dagozalako”. Bere taldeak eta Podemos Bizkaiak, ahozko erantzun-eske baten bitartez, erakundeen arteko “koordinazino faltea” aurpegiratu deutsie, baina Rementeriak hori ez dala holan esan dau. “Beti egin leitekez gauzak hobeto”, baina koordinazinoa “ona eta emonkorra” izan da. Koordinazinoa “ez da ari arazoa izaten, aliaua izaten ari da”, gehitu dau.

Rementeriarenean berbak entzun ostean, Eneritz de Madariaga Podemos Bizkaia taldearen bozeroaleak, hondakinak nora joango diran argitzeko eskatu deutso Aldundiari, eta “aldaketak” eskatu ditu krisi horretan Aldundiak aurrera daroan kudeaketan, “zeozer txarto egin dabela autortzea, jarduketako protokoloak barrikustea eta hondakinen kontrola eta tratamantua barriro planteetea”, besteak beste.

BESTE BARRIKUNTZA BATZUK



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAI A

Urteko kontroleko bigarren Osokotik beste barrikuntza batzuk be sortu dira, Miguel Ángel Gómez Viar Bizkaiko Lurraldeko Garraio, Mugikortasun eta Kohesiorako foru diputatuak, Bakio eta Bermeo artean Gaztelugatxera joango dan zerbitzu berezia iragarri dau, EH Bilduri erantzunez. Autobus bik bidaiak egingo ditue ordu erdirik behin, goizeko 09:00etatik arratsaldeko 20:00etara, datozen zubietan. Ezarri diran egunak martiaren 19tik 22ra (San Jose zubia); apirilaren 4tik 19ra (Aste Santua) eta maiatzaren 1etik 3ra (Maiatzaren 1eko zubia) dira.

Elkarrekin Podemos taldeak ikusmen urritasuna daukien personen irisgarritasuna hobetzeko moduaren ganean egin dauen beste erantzun-eske bati erantzunez, Gómez Viarrek persona horreei “aginte” bat emoteko proiektua iragarri dau. Aginte horrek autobus geralekuen barri “kantauko” dau autobus barruan.

Teresa Laespada enplegurako diputatuak, bere aldetik, 45 urtetik gorako langabetuei eta zaurgarritasun egoeran dagozan gazteei zuzendutako enplegu eta prestakuntza programa mistoa martxan jarri dala iragarri dau, “104 personari” zuzendutako prestakuntza dualeko esperientzia pilotua, “persona horreek lan merkaduan jarteko. Programea eraginkorra bada, arlo gehiagotara zabalduko da”, adierazo dau.

Sergio Murillo Gizarte Ekintzako diputatuak, bere aldetik, etxean zainketa lanak egiten dituen personei zuzendutako prebentzino arloko prestakuntzako neurriak iragarri ditu, Lanbidegaz alkarlanean. Izaskun Duque EH Bilduko batzarkideak adierazo dauenez, kolektibo hori “21.000 personak osatzen dabe, horreetatik %80 emakumeak”.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

## NOTA DE PRENSA

# LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA SE PERSONARÁ COMO ACUSACIÓN PARTICULAR EN LA CATÁSTROFE DE ZALDIBAR

- **El Diputado General, Unai Rementeria, anuncia la medida en el pleno de control de las Juntas Generales al entender que tanto la institución foral como la ciudadanía se han visto "perjudicadas".**
- **Bizkaibus duplicará su servicio en los puentes de San José y 1 de mayo, y en Semana Santa, para llegar a San Juan de Gaztelugatxe.**

(Gernika, a 26 de febrero de 2020) . – El Diputado General de Bizkaia, Unai Rementeria, ha anunciado hoy, en el pleno de control de las Juntas Generales celebrado en Gernika, que la Diputación foral de Bizkaia “se personará como acusación particular” en la catástrofe de Zaldibar, por entender que tanto la institución foral como la ciudadanía de Bizkaia se han visto “afectadas” y “perjudicadas” por el desplome del vertedero.

Rementeria ha hecho este anuncio en respuesta a una interpelación de EH Bildu, grupo juntero que le pedía aclaraciones sobre si la institución foral iba a ser proactiva jurídicamente. El máximo responsable de la Diputación ha señalado que “habrá que poner todo en claro. Todo: quién autorizó la apertura de ese vertedero, quién ha tenido la responsabilidad municipal del vertedero durante estos años, quién no ha controlado, o sí, lo que se vertía ahí, quién ha actuado bien o mal. Que se investigue a fondo todo y que se depuren responsabilidades, claro que sí”, ha dicho.

La portavoz de EH Bildu Beatriz Ilardia ha aprovechado su turno de réplica para introducir nuevas preguntas en relación al caso y, en concreto, ha pedido a Rementeria que explicara si era posible un nuevo desprendimiento en la zona afectada, si conocía lo que hay en el vertedero de Zaldibar y dónde se están llevando los residuos que salen de la escombrera derrumbada.

En su respuesta, el Diputado general ha lamentado que la coalición abertzale busque el “ruido” y la “polémica” y que se esconda en la situación de “cuanto peor, mejor para mi partido”, en vez de trabajar “todos a una” como sí lo



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

hicieron en el caso del derrumbe de la ladera de Ondarroa en marzo de 2016, cuando “daba igual el color político”, ha respondido.

En el caso de Zaldibar, Rementeria ha hecho un repaso de las acciones que ha llevado a cabo la Diputación desde que se produjo el derrumbe y ha advertido de que queda “mucho trabajo por hacer”. Previamente, ha comenzado su intervención manifestando su solidaridad con las familias de los dos trabajadores que aún permanecen desaparecidos y su agradecimiento a los profesionales que están trabajando en la zona desde el deslizamiento.

Asimismo, ha recordado que la inestabilidad del terreno sigue siendo "el enemigo" y ha advertido de que estabilizarlo va a requerir "mucho trabajo y mucho tiempo, meses".

Rementeria ha mostrado su reconocimiento a la labor de representantes de las distintas instituciones, "el primero el lehendakari por liderar esta crisis desde el inicio". Por el contrario, ha cuestionado la actitud de "algunas formaciones" tras lo sucedido.

Por su parte, la portavoz de EH Bildu ha señalado que “es hora de que la Diputación actúe con responsabilidad”. Ha definido el paso dado por la Diputación de “positivo” porque la Diputación tiene un “vínculo” con lo sucedido, además de que detrás “hay miles de personas perjudicadas”. Tanto su grupo como Podemos Bizkaia, a través de una pregunta oral, le han recriminado la “descoordinación” interinstitucional, circunstancia que ha negado después Rementeria. “Siempre se puede mejorar”, pero la coordinación ha sido “buena y productiva”. Ésta “no está siendo un problema, sino un aliado”, ha añadido.

Tras escuchar las palabras de Rementeria, la portavoz de Podemos Bizkaia, Eneritz de Madariaga, ha reclamado a la Diputación que aclare dónde irán los vertidos, y ha pedido “cambios” en la gestión foral de esta crisis, como el de “reconocer que algo han hecho mal, revisar los protocolos de actuación, y un replanteamiento del control y tratamiento de los residuos”.

## OTRAS NOVEDADES

Del segundo Pleno de control del año de la Cámara vizcaína han surgido otras novedades. El diputado foral de Transportes Movilidad y Cohesión del Territorio



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

de Bizkaia, Miguel Ángel Gómez Viar, en respuesta a EH Bildu, ha anunciado un refuerzo para Gaztelugatxe de la línea que une Bakio y Bermeo. Dos autobuses realizarán viajes cada media hora, entre las 9 de la mañana y las 8 de la tarde, durante los próximos puentes festivos. Las fechas establecidas son del 19 al 22 de Marzo (puente de San Jose); del 4 al 19 de Abril (Semana Santa) y del 1 al 3 de Mayo (Puente del 1 de mayo).

Respondiendo a otra pregunta de Elkarrekin Podemos sobre cómo mejorar la accesibilidad de las personas con discapacidad sensorial visual, Gómez Viar ha anunciado un proyecto para dotar de un “mando” a estas personas que “canten”, dentro de los autobuses, la llegada a cada parada de bus.

Por su parte, la diputada de Empleo, Inclusión e Igualdad, Teresa Laespada, ha anunciado también la puesta en marcha de un programa mixto de empleo y formación para personas desempleadas mayores de 45 años y jóvenes en situación de vulnerabilidad, una experiencia piloto de formación dual para “104 personas”, que van a formar parte de un programa “novedoso” de 6 meses de duración “que les coloca en el mercado laboral. Si el programa es efectivo se extenderá a más áreas”, ha asegurado.

Por su parte, el diputado de Acción Social, Sergio Murillo, ha informado también de la extensión de medidas preventivas de formación, en colaboración con Lanbide, para las personas cuidadoras en el hogar, un colectivo que está formado, según ha apuntado la juntera de EH Bildu Izaskun Duque, por “21.000 personas, el 80% mujeres”.